

"Ez dok Hiru" Bikoteatroak aurkezten du

Iarru haizetara

Sexu kuadernoak



sexu inkesta

• **Kondoiak erosten dituzu...**

- Bukatzen zaizkidanean
- Kadukatzen zaizkidanean

• **Orgasmoaren ostean...**

- Argia itzaltzen dut
- Ordenadorea itzaltzen dut

• **Gurinak tostadaren gainean ipintzeko ere balio du.**

- Egia
- Gezurra

• **Zer da zuretzako "dirty dancing" bat?**

- Tango bat Parisen
- Arin arin bat Aretxabaletan

• **Zure bizitzako gizon/emakumearekin amodioa egin ostean...**

- Lotan geratzen naiz
- Esnatzen naiz

• **Azken esperientzia sexuarekin zure sexu-kidea zen...** (*) Megabitetan

- 20koa 40koa
- 30koa 50koa (*)

• **Zer da klitoris-a?**

- Kantu gregoriano bat.
- Ez esan, mingain puntan daukat eta.

• **Kontradiktorioa da "glande" txikia edukitzea.**

- Egia
- Gezurra

Idatzi kunplitu dituzun fantasia sexualak:

Idatzi kunplitu EZ dituzun fantasia sexualak

Egilea: **Patxo Telleria**
Aktoreak: **Patxo Telleria,**
Mikel Martinez
Zuzendaria: **Aitor Mazo**

Aholkularia: **Jokin Oregi**
Eskenografia: **Aitor Mazo**
Musika: **Bixente Martinez**
Diseinu grafikoa: **DI-DA**



Banatzalea: **TEATRORAT (Maite Arrese)** 943 48 53 81 - 690 630 748

www.teatrorat.com

AURKEZPENA

Musika bat entzuten da. Patxo eta Mikel sartzen dira eskenatokira, boxeolarien “bata” koloredunekin.

Offeko abotsa entzuten da, txalo eta bitoreen artean:

Off.

Eskubian, 50 urte, 70 kilo, Mikel “Kamasutra” Martinez!! Langabetua. Bost sexu saio. Horietatik lau gatillazo, eta coitus interruptus bat. Jaio zenean, hain itsusia zenez, medikuak esan omen zion bere aitari: “ahal duguna egin dugu baina... jaio egin da”; Hala ere, oraindik badu birginitadea galtzeko esperantza.

Buelta eman eta bere bataren atzekaldean idatzita: “Ba duzu planik gaurko?”

Off.

Ezkerrean, 45 urte, 95 kilo, Patxo “Sex Machine” Telleria!! Langabetua. Bederatzi sexu saio. Bost telefonoko linea erotikoan eta lau interneten. Jaio zenean erizainak idatzi zuen bere fitxan: “gizonezkoa, hiru kilo lauhun gramo, soltero”. Hala ere, oraindik badu birginitadea galtzeko esperantza.

Buelta eman eta bere bataren atzekaldean idatzita: “Zure etxean ala nirean?”

BERTSOLARRIAK

Mikrofono banaren aurrean kokatzen dira, bertsotan hasteko moduan. Ixiltasuna.

Patxo.

“Jaun andreak gabon ta ongi etorri” Aiba Dios...

Mikel.

Zer?

Patxo.

Ahaztu zait.

Mikel.

Zer?

Patxo.

Txurian geratu naiz.

Mikel.

Esan dizut ba, bertsoekin ez hasteko!! Zer zerikusia du ba, sexuak bertsolaritzarekin?

Patxo.

Bietan poto egiten dugu.

Mikel.

Ba orain, inprobisatu beharko duzu.

Patxo.

Oso txarra naiz errimak egiten.

Mikel.

Berotu pixkat. Ea ba: ondo.

Patxo.

Eh... Ondo...Katxondo.

Mikel.

Hori da, txapeldun. Tortikolis.

Patxo.

Klitoris.

Mikel.

Ez dago txarto. Ene.

Patxo.

Pene.

Mikel.

Mus.

Patxo.

Coitus interruptus.

Mikel.

Amorrua.

Patxo.

Menage a trua.

Mikel.

Arazo.

Patxo.

Gatillazo.

Mikel.

Dotorea.

Patxo.

Bibradorea.

Mikel.

Euskara.

Patxo.

(...) Euskara?

Mikel.

Bai, euskara. “-ara”.

Patxo.

“-ara”... “-ara”... Ez zait ezer bururatzen. Esan bat.

Mikel.

Erreza da, ea ba... Hara, bat ere ez.

Patxo.

Hau da hau, euskara entzun eta libido guztia joan egin zait!!

Mikel.

Lasai, txapeldun, Ez erabili “ara” errima eta kitto.

Hurrengo eskenako bertsoa (kursibaz dagoena) “Txirrita”-ren doinuaz kantatua da.

Patxo.

Jaun andreak gabon ta ongi etorri denak Larruaizetara.

Mikel.

Jode "Txapeldun"!

Patxo.

Zer gertatzen da?

Mikel.

lio baten sartu zara.

"-ara" errima ez zaigu irteten.

Patxo.

Ai mi madre, hau dardara!!

Ni banoa

Mikel.

Ez, zu sartu zara, zuk beharko duzu atara.

Patxo.

Kagoensotz, utzidazu pentsatzen...

Mikel.

Tralari eta tralará.

Patxo.

Egon ixilik

Mikel.

Ez du asmatuko

Patxo.

Joan zaitetz ba pikutara!

Mikel.

Erridukulo galanta, Patxo. Egañak zaitzala anpara.

Patxo.

Kagoensandorao, bota zazu zuk hain "listo" baldin bazara.

Orain Mikelen txanda da. Bertsoa nola moldatu burua jaten, hatzamarrekin silabak kontatuz... Azkenean ausartzen da.

Mikel.

Gabon ikusle maitagarriak, bihotzean dut zirrara.

Patxo.

Jode, Txirrita!

Mikel.

Zer duzu orain?

Patxo.

Ez al duzu ba errepara?

Mikel.

Zer erreparatu behar dut ba?

Patxo.

Errima

Mikel.

Errima?

Patxo.

"-ara"

Mikel.

Kagoenxenpelar! Lagunduidazu.

Patxo.

Ez, bukatu zure erara.

Nik baino gehiago omen dakizu.

Mikel.

Ezin daiteke konpara.

Patxo.

Erakutsi ordun,

Mikel.

egon pixka bat, zer errima zen?

Patxo.

-ara.

Mikel.

Hara!

Patxo.

Bukatu behingoz.

Mikel.

Ezin dut.

Patxo.

Eutsi!

Mikel.

Bat etorri zait burura!!

Jaun andreak gabon ta ongi etorri denak Larruaizetara.

OBSESIOAK

Patxo.

Eskerrik asko etortzeagatik. Zuengatik ez balitz gu orain kalean egongo ginateke mozkortzen edo drogatzen.

Mikel.

Edo larrua jotzen.

Patxo.

Esaten den bezela: hobe antzerkian eta ez lapurretan.

Mikel.

Edo fornizioan.

Patxo.

Ze gauza bat argi utzi nahi dugu hemen: guri sexuak bost ajola.

Mikel.

Gehiago esango nuke nik: guri sexuak hirurogeita bederatzi ajola.

Patxo.

Baina zuentzat sexua arazo bat da. Guk badaukagu arazoa konpontzeko soluziobidea, eta hori aurkeztera etorri gara.

Mikel.

Eta bide batez, rollitoren bat suertatzen bada...

Patxo.

Ahaztu baino lehen, gogoratu inkesta banatu zaizuela. Baten batek ez badu oraindik bete, mesedez, egizu lehenbait lehen. Eta jarri zuen izen abizenak.

Mikel.

Eta telefono zenbakia!

Patxo.

Sexoa arazo bat da ia mundu guztiarentzat. Mundu osoa dago sexuarekin obsesionatuta: amerikarrak, italiarrak...

Mikel.

Frantsesak... griegoa... tailandesa... Etxean nahiz hotelean... Diskrezio osoa, bisa onartzen da...

Patxo.

Baina obsesionatuenak, euskaldunak.

Mikel.

Beno, euskaldunena pasada bat da!

Patxo.

Euskaraz dena bihurtzen da sexu. Esatebaterako, eredrazko nobela hura: “¿Por quién doblan las campanas?” Euskeraz: “Norengatik ari dira kanpaia jotzen?”

Mikel.

«Casablanca»: “Jo zak berriro, Sam.”

Patxo.

“El Cartero siempre llama dos veces”: “Postariak beti jotzen du bi aldiz”

Mikel.

“La piel contra la piedra” “Larrua jotzen hormaren kontra”.

Patxo.

Obsesionaturik egotea oso txarra da. Zenbat eta obsesio handiagoa, orduan eta ihardun gutxiago. Esatebaterako, Mikelek ez du erretzen. Eta ez gogorik ez duelako.

Mikel.

Sekulako tximinoa daukat.

Patxo.

Tabakoarekin obsesionatuta dago. Begira zer gertazen zaion. Tori, Mikel.

Patxok zigarro bat ematen dio Mikeli.

Mikel.

Koño, zigarro bat!!

Malbororen anuntziaren sintonia entzuten dugu. Mikelek zigarroa erre nahi du, baina ez du piztea lortzen, urduriegi dagoelako. Musikarekin batera, abots bat:

Patxo.

Mendebalde basatiaren larredietan, ilunabarrean, zure zaldia, zure txiskeroa, eta zure... gatillazoa”.

Mikel.

Beste “Zigarruz interruptus” bat!

Patxo.

Mikelek ez du sekula zigarro bat erre, tabakoarekin obsesionatuta dagoelako. Obsesionatuta egoteak ez du batere laguntzen. Ba hori gertatzen zaigu guri sexuarekin, ez gaudela obsesiona...

Patxo dardarka hasten da. Halako zaratatxo bat entzuten da.

Mikel.

Zer duzu?

Patxo.

Nik? Ez dakit.

Poltsikotik martxan dagoen bibradore bat ateratzen du.

Patxo.

Kontxo! Bibradore bat!

Mikel.

Ez duzu jakin hor zegoela?

Patxo.

Bai, baina nirea zela uste nuen, naturala.

Mikel.

Ez duzu zurea ezagutzen?

Patxo.

Aspalditik ez dut ikusi. Tripa egiten hasi nintzenetik. (Bere ankarteari) Epa, aspaldiko! Zer moduz? Lasai, ez duzu altzatu beharrik!

Eusko gudariak entzuten da, mobilen politono hirietako baten tinbreaz.

Patxo.

Eta hori?

Mikel.

Hori, zer? Ah...

Poltsikotik paketetxo bat atereaz.

Mikel.

Preserbatibo musikal bat. "Kondoio abertzalea". Ikerketa bat egiten ari naiz.

Patxo.

Kondoioei buruz?

Mikel.

Ez.

Patxo.

Zakilei buruz?

Mikel.

Ez. Eusko Gudariari buruz.

Patxo.

Ba ixildu zazu lehenbaitlehen, nire neurona euskaldunak katxondo jartzen ari dira eta orgasmo abertzale bat izatera noa.

Mikel.

Hemen ez ! Eutsi, motel!!

Kolpetxoak ematen dizkio kondoiari, gero eta fuerteagoak, baina musika gero eta ozenago entzuten da.

Patxo.

Ezin dut!

Mikel.

Patxo, mesedez, jendearen aurrean, zelako lotsa!!!

Patxo.

(Irrintzi bat botatzen du) Aiaiaiaiaiaaaaaiaaajjjjaajjjaiiiiiiii!!! Jode, nola geratu naizen!!

Patxok zigarro bat pizten du.

Mikel

Ia? Hain azkar?

Patxo

Abertzale prekoz bat naiz... Eta multiorgasmikoa!!

Mikel

Ez, ez, Patxo, itxoin...

Mikelek azkenean lurrera bota eta gainean saltoak ematen ixiltzen da.

Mikel.

Ixildu da behingoz!

Patxo.

Eskerrak ez duzula ipinita.

Mikel.

Zuk ez duzu kondoirik?

Patxo.

Ez... Beno, bat.

Poltsikotik ateraten du kondoi bat hautsez beterik.

Mikel.

Kadukatuta ematen du, ez?

Patxo.

Ez diot “carbono 14” froga egin. Dena den ez da sexua praktikatzeko, baizik eta gure patua gogoratzeko: “Zenbat hauts, eta ze polbo gutxi.”

Mikel.

Hori da hautsa!

Patxok eztula egiten du. Mikelek bizkarrean kolpe bat ematen dio.

Mikel.

Zer duzu hor?

Patxo.

Hemen? (Liburu bat atereaz) Ah, liburu bat.

Mikel

Kamasutra.

Patxo

Bai, baina euskeraz, "ka"-rekin. Euskara praktikatzeko : « ni zure gainean jarriko banintz... » « Zure anka nire lepogainean ipiniko bazenit... »

Mikel

Ah, hipotetikoak ?

Patxo

Oso hipotetikoak, bai.

Zigarroa botatzen du.

Patxo.

Ahh! Tabakoa, ze zapore txarra.

Mikelek poltsikotik pakete bat ateraeaz.

Mikel.

Nik marrubizko zerak ditut...

Patxo.

Ba pasa bat.

Mikel.

Baina zertarako nahi duzu...

Aboan sartzen du.

Mikel.

...marrubizko kondoi bat?

Patxo atragantatzen da.

Patxo.

Ah!! Ah!!!

Mikel.

Zer?

Patxo.

Itotzen ari naiz!!

Mikel.

Eutsi!! Flotadore bat daukat!!

Mikelek flotadorea (panpin puzgarria)atera eta puzten du. Indiana Jonesen musika entzuten da.

Patxo.

Ezin dut gehiago.

Mikel.

Eutsi!!

Patxo.

Itotzen ari naiz!!

Mikel.

Eutsi!!

Panpina puzgarria beteta dagoenean jaurtitzen dio.

Patxo.

Eskerrik asko.

Mikel.

Ez dago zergatik.

Patxok, panpin puzgarria besapean duela.

Patxo.

Zertan ari ginen? Ah, ez gaudela sexuarekin obsesionatuta.

Mikel.

Guri sexuak hirurogeitabederatzi ajola.

EZKONTZA DESPEDIDA

Patxo.

Baina gu salbuespena gara. Ze euskaldunak obsesionatuta daude.

Mikel.

Eta errua euskarararena da. Euskerari sexua dario. Kontua da, sexualtasun hori izkutatuta dagoela, kamuflatuta. Eta ez gara konturatzen, baina hor dago.

Patxo.

Herrien izenak, esatebaterako. Ez zarete fijatu gure herrietako izenak koñotazio sexualdez josita daudela?

Mikel.

Ez dira konturatu eta ez digute sinisten. Ea ba, egin dezagun erakustaldi bat. Jarri dezagun euskal egoera hipotetiko bat: bi mutil zahar...

Patxo

Hipotetikoa ez al duzu esan?

Mikel

Benoa, euskal egoera tipiko bat: bi mutil zar, bakoitza solteru despedida batetik datorrena:

Solteru despadidako ezauzarriren bat ipini.

Patxo.

Mikel, Arretxabaleta!

Mikel.

Pasai, Patxo Pasai? Zuk ere solteru despedida?

Patxo.

Bai. Guk Barrikan ospatu dugu.

Mikel.

Barrika Billabona da, oso Billabona.

Patxo.

Baiona, bai. Eta zuek?

Mikel.

Gu El Ciegon egon gara.

Patxo.

Ole!! El Ciegon, Bedarona. Itxaron, Bermeo pixka bat.

Mikel.

Ni ere Meagas.

Patxo

Ea non aurkitzen dugun... portal bat ! Hara, hortxe !

Buelta eman eta txizga egiten hasten dira.

Patxo.

Ea!! Lesaka... Araba!!

Mikel.

Buah! Orain bai Estarrona, eh?

Txizga bukatzen dute.

Patxo.

Estarrona, Estarrona, streepteesa egin duena... Buah! Zelako Dantzariemea!

Mikel.

Zer? Gazteiz?

Patxo.

Ez, Donazarre, baina Peralta... Gatika bat.

Mikel.

Gatika Villaviciosa?

Patxo.

Oso Villaviciosa. Busturia Busturia.

Mikel.

Derio!! Kontau!

Patxo.

Dantzariemea hasi da dantzan... Gu denak Usurbil, Atxondo Atxondo.

Mikel.

Bastida zegoen?

Patxo.

Biluzik! Eta Bernagoitia! Gu denak Miramon.

Mikel.

Jode... Zuberoa, ez?

Patxo.

Buf! Abrasate. Eztarria Legorreta. Kuadrilla erdia Kaskante Maguna.

Mikel.

Joe! Zure kuadrillan beti Usansolo, eh?

Patxo.

Baina Iñaki eta biok joan gara Dantzariemearekin...

Mikel.

Derio!!! Eta?

Patxo.

Buah!! Buah!!

Mikel.

Kontau, kontau, zenbat aldiz, Iruna? Laukiz?

Patxo.

Ez zait Altza.

Mikel.

Tafalla?

Patxo.

Ma falla!!

Mikel.

Berriz? Jo! Lazkao, matxo! Eta Iñaki?

Patxo.

Iñaki, bai, Elizondo. Baina ez du Trabakua erabili.

Mikel

Trabakua?

Patxo

Gordexola. Eta orain kriston Eskoriatza.

Mikel.

Horrela Errezil.

Patxo.

Beno, eta zuk zer, Meñaka?

Mikel.

Buah!

Patxo.

Kontau, kontau...

Mikel.

Buah!!! (...) Sado Maso.

Patxo.

Donapaleu ?

Mikel.

Bai. Ataun. Eta gero Donostiaka Zigoitiarekin.

Patxo.

Baiona!

Mikel.

Baizera! Ni Fustiñana naute.

Patxo.

Es ke , Zarauts, eh?

Mikel.

(Bizkarra erakutsiz) Beitu, Gorriti.

Patxo.

Koño, Baigorri.

Mikel.

Eta gainera, Latasa nik Pagola. Amezketa txar bat.

Patxo.
Baina puta madre pasa dugu, ez?

Mikel.
Ea!!

Patxo.
Alegria de Oria!!

Mikel.
Alegria de Oria!!

EUSKARAREN GABEZIAK

Patxo.
Argi dago, euskaldunak ez du ligatzen ez ta solteru despedidetan.

Mikel.
Atzerrian berriz, oso erreza da.

Patxo.
Joan zaituz Londresera. Zer daramate idatzita neskamutilek alkondaretan? “I love sex”
Obazioa

Mikel.
Edo joan zaituz Parisera, eta zer daramate idatzita gazteek alkondaretan? “Je suis un machine sexuel”.
Obazioa.

Patxo.
Joan zaituz Sevillara: “Nasío pa ligar” (Id)

Mikel.
Joan zaituz Cadizera: “Nasío pa bacilar” (Id)

Patxo.
Joan zaituz Azpeitiara: “Nasío... eztabaidagunea” Gainera, hizkuntza bera, euskara, arazo bat da. Ze beste hizkuntzetan badira kanta unibertsalak elkar ulertzeko: “Ei, pretty woman!”

Mikel.
“I can't get no satisfaction.”

Patxo.
“All you need is love.”

Mikel.
“Sex, drugs and rocanroll”

Patxo.
“Abuanbabuluna balanbanbu”

Mikel.
Frantsesez ere erreza da: “Je t'aime”

Patxo.
« Moi non plus. »

Mikel.

Voulez vous coucher avec « mua mua » ?

Patxo.

Pour « cua cua »?

Mikel.

Ne me quitez « pa pa ».

Mikel badoa neska bategana. Patxo eusten dio.

Patxo

(Neskari) Barkatu, hau frantsesez hasten denean berotzen da segituan. Gaztelaniazko kantutegia ere oso egokia da. Esan munduko edozein bazterretan “Aserejé ja deje ejebe to the jerebe say nouva majabi on the boogüie and the buguiribi” eta tira, ligatu agian ez duzu ligatuko, baina zutaz gogoratuko dira.

Mikel.

Baina joan zaitez atzerrira eta esaiozu norbaiti: “Nik zu zaitut maiteago arraitxoak ura baino”

Patxo.

What do you say??

Mikel.

Ikusten? Euskerarekin ligatzea oso zaila da. Zuk atzerrian “Nik zu zaitut maiteago arraitxoak ura baino” esan eta berak halako zeozer aditzen du.

Off.

“Nintxu sautu mitungago irduntxoa kurda bando.”

Patxo.

Niretzat ere euskara horrelako zerbait zen, ikasi baino lehen:

Patxo taberna batean sartzen da. Irratia entzuten da. Athletic-en partidu bat, euskeraz.

Patxo.

Aupa Athletic!! Ponme una caña.

Irratia.

“Ateko sakea txurritunda batendako txanda.”

Patxo.

¿Cómo va?

Irratia.

Morrongo bustangorri barrabastandu kakalamendi egin dio.

Patxo.

¿Qué dice del indio? Oye, te importa cambiar de emisora?

Mikel.

Euskalerrian euskaraz.

Irratia.

Txorromorro zurratzen xirrimirri batentzunda.

Patxo.

Ya, pero es el Athletic, jodé. Pon Carrusel Deportivo.

Irratia.

Bustingorri erreka goitia txapelandi iturri gorri falta egin dio.

Patxo.

Y dale con el indio.

Irratia.

Morrondongo txurupatzen txalaparta.

Patxo.

Cago en diez, ¿qué está pasando?

Irratia.

Burrundandi mondongillo batxusten da.

Mikel.

Guk Euskeraz, zuk zergatik ez.

Patxo.

Está bien. Mañana me apunto al euskalategi. ¿Pero dime qué pasa?

Mikel.

Fuera de juego.

Patxo.

¿Y cómo van?

Mikel.

¡¡Tsssst!!!

Irratia.

Barra barra durrudugoitia, gurrutxurtuuuuuu!!! eta kanporaaaaa!

Mikel.

Uiiiiiii!! Empate a cero.

Patxo.

Un puntito, menos da una piedra.

Irratia.

Musumurru barrentxeko mandanlaundi...

Mikel.

Falta en contra.

Patxo.

Cago en diez. ¿Qué queda?

Mikel.

Un minuto.

Irratia.

Musutruku irrintzi kukuxumusu pitogorri arbitrotxenko...

Mikel.

Libre directo.

Irratia.

Garronoski aibalaostia batentxunda.

Mikel.

El turko pone la pelota...

Irratia.

Mutxurdina lepoanhartu egoak ebaki...

Mikel.

Golpea el esférico...

Irratia.

Lautellatu arrijatxenko tontorrean.

mikel.

El portero se estira...

Irratia.

Jalgihadi txorromorropikotallokeeeeeee...

Mikel.

Toca el balón con la punta de los dedos...

Irratia.

Geltokitzenko mondongoski batendako...

Mikel.

Pero su estirada resulta inutil.

Irratia.

¡¡Batzoki txiruliru saldungoiti sandorao...!!

Patxo.

¿Qué ha pasado?

Irratia.

¡¡Mierdatzenko putakumoski kanoentodogoitia!!

Patxo.

¡¡¡Eso me da mala espina!!! ¿Qué ha pasado? ¡Responde!

Mikel.

Se ha acabado. Han perdido.

Música fúnebre.

Patxo.

¡¡¡El euskera es una mierda!!!

Mikel.

Nire lehen kontaktua euskerarekin, berriz, oso atsegina izan zen.

Patxo.

Jakina, zuk metodo moderno erabili zenuen.

Mikel.

Oh, bai.

Patxo.

Metodo pedagogikoa.

Mikel.

Oh, bai!

Patxo.

Zuk suerte handia izan zenuen.

Mikel.

Oh, bai!

Patxo.

Bideoen bidez ikasi zuen.

Mikel.

Oh, bai!

Patxo.

Orain primeran hitz egiten du.

Mikel.

Oh, bai.

Patxo.

Beno, agian muletilla bat edo beste geratu zaio, baina hori metodoagatik izan zen.

Bideo porno bat "ikusten" ari da. Bertan neska bat dihardui hizketan. Mikel kuadernoarekin, notak hartzen.

Off.

" Oh, baaaaaiiii ! Oohhh baaaaaiiii!! HUUUUUMM, ohhhhh baiiiiiiiiiiii."

Patxo.

Berehala ikasi zituen hitzik inportanteenak: bai, ez, handia, gogorra, sartu, txurruptatu.....

Mikel.

Oh, bai!

Patxo.

Izan ere, batzutan euskera oso dago.

Mikel.

¡¡Oh, bai!!

Patxo

Baina ez du ligatzeko balio.

Mikel

Oh, ez.

GERRA HIZTEGIA

Patxo.

Guk hutsune hori betetzeko hiztegi bat egin dugu.

Mikel.

Bai, euskarak izkutuan duen sexualitate hori... alegia, oso izkutuan duen sexualitate hori agerian utzi nahi genuen.

Liburua erakusten dute.

Patxo.

Euskera-gaztelania-frantsesa: Izenburua, “Haz el amor, no la gerra” “Faire l’amour pas la guerre” “Ibili musuka ta ez ostiaka”

Mikel.

Hona zenbait hitz... Sexua bikoteka egin:

Patxo.

Larrua jo.

Mikel.

Bakarka.

Patxo.

Eskularru.

Mikel.

Lau lagun,

Patxo

Larrukote.

Mikel.

Orgia.

Patxo.

Larruogitapiku.

Mikel.

Orgia nazionalista.

Patxo.

Larruak bat.

Mikel.

Obsesu sexuala

Patxo.

Larruzoro. Ez nahastu larruzorroekin.

Mikel.

Hori kondoia da. Libidoa.

Patxo

Larrugogo.

Mikel.

Kabaretera.

Patxo.
Larrugogó.

Mikel.
Gigolo.

Patxo.
Larruboy.

Mikel.
Travesti.

Patxo.
Larrutruk.

Mikel.
Orgasmoa.

Patxo.
Larruikara.

Mikel.
Fetitxismoa.

Patxo.
Larrufashion.

Mikel.
Felazioa.

Patxo.
Larrupatu.

Mikel.
Francés.

Patxo.
Larrüa jo.

Mikel.
Eta jakina, Estriptisa:

Patxo.
Larruaizetara.

“LEY DE VASCOS COMUNICANTES”

Mikel.

Ez dugu hiztegi bat ere saldu. Euskaldunak oso kobtserbadoreak garelako. Eta komunikatzeko sekulako arazoak ditugu.

Patxo.

Hori lege fisiko bat da: “La ley de vascos comunicantes”: “Euskaldunak, infinitoraino iritsi arren sekula gurutzatzen ez diren linea zuzenak dira” Eta Bilintzek ederki islatu zuen bere bertsoan:

Musika entzuten dugu. Patxok eta Mikelek dantza egiten dute paraleloan, sekula gurutzatu gabe.

*“Neska polita zara polita gustiz bai
hala ere omen zaude oraindik ezkongai
ezkon gaitezen biok esan zaidazu bai
ni zurekin ezkondu, ni zurekin jajai! »*

Patxo.

Izan ere euskaldunak milaka eta milaka urte daramagu hemen, Kantauriko partean. Hasieran, oraindik euskera inbentatu gabe zegoen eta inkomunikazioa erabatekoa zen. Aarazoa konpontzeko, euskaldun tribu guztiak batu ziren: “homo erectus”, “homo interruptus”, “homo eiakulator prekozis”...

Mikel

Homo frigidus...

Patxo

Eta euskera asmatu zuten.

Mikel.

Baina ai! Euskerak ez zuen komunikazio arazoa konpondu.

Patxo.

Jakina, ze kobazulo batetik besteraino distantzia handiegia zegoen. Imajinatu Maria Magdaleniense eta Ander Tal, kobazulo batetik bestera ohiuka.

Ohiuka hitz egiten dute.

Patxo.

Neska polita zara... zara... zara... zara...!!!

Mikel.

(Bere kabuz) Sara? Ze Sara, ni Maite naiz, nor izango da Sara hori, pelanduska bat, seguru.

Patxo.

Polita gustiz bai... bai... bai...!!!

Mikel.

(Bere kabuz) Eta baietz esaten dit, lotsagabeak!

Patxo.

Hala ere omen zaude oraindik ezkongai... gai... gai...

Mikel.

(Bere kabuz) Gai? Banengoen ba ni!

Patxo.

Ezkon zaitez nirekin, esan zaidazu bai, bai, bai!!!

Mikel.

Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin jajajajajaiiiiiiiiiiii!!

Porrotaren jinglea.

Patxo.

Inkomunikazio latza. Hori konpontzeko inbentatu zuten euskaldunek txalaparta.

Txalaparta bi, bakoitza eskenatokiaren alde batean. Txalaparta entzuten da.

Patxo.

Polita dirudi ezta? Hara, berriz joko dugu, baina itzulpen simultaneoarekin.

Berriro txalaparta jotzeko imintzioak egin baina oraingoan zarata barik hitzak entzungo ditugu.

Patxo.

Neska txukurrun polita zara polita txakun txakun guztiz txukurrunkun bai, ala ere omen txukurrunkun zaude oraindik txakun txakun ezkongai. Txakun Ezkonzaitez txukurrukutxun nirekin, esan zaidazu txukurrukutxun bai

Mikel.

Ni zurekin txakun txakun? Ni zurekin txis pum!!

Porrotaren jinglea.

Patxo.

Hemeretzigarren mendean telegrafoaren garaia heldu zen. Baina zer nahi duzue, telegrafoak ez zuen komunikazioa konpondu. Begira zer gertatu zitzaion Bilintx poeta gaixoari, modernoarena egiteagatik, bere bertso sonatua telegrafoaren bidez kantatu zuenean:

“Ni zurekin jajai” bertsoaren doinuaz:

Marra punto punto marra, marra punto punto
punto marra punto punto marra marra punto
marra punto marra marra marra punto punto

Mikel.

punto marra ta punto punto ta marrano.

Patxo.

Geroago beste asmakizun bat heldu zen, irratia, baina arazoak ematen zituen.

Walki talki bana hartu eta bakoitza eskenatokiaren mutur batean.

Patxo.

Neska polita zara, polita gustiz bai, txanda.

Mikel.

Zer? Entzuten dizut nahiko txungo, txanda.

Patxo.

Ze esan duzu...? Txungo... zera txunda... zera txanda?

Mikel.

Txandal, txanda?

Patxo.

Ez, txanda, espainiako himnoaren letra bezala (Kantatuz) “Txanda txanda tatxan tatxan tatxanda... », txanda .

Mikel.

Ez da « Txunda txunda tatxan tatxantatxunda.. »?, Txanda.

Patxo.

Egia da, “txunda txunda”! Txanda txanda... zera txunda... zera txanda.

Mikel.

Zertan ari ginen, txanda?

Patxo.

Eh? Ah, bai. Neska polita zara, txanda.

Mikel.

Etzanda, txanda?

Patxo.

Etzanda eta zutik. Hala ere omen zaude oraindik ezkongai. Ezkon gaitezen biok, esan zaidazu bai, txanda.

Mikel.

Artxandan, txanda?

Patxo.

Artxandan edo nahi duzun tokian ze nago zeharo katxondo, txondo... zera txanda.

Mikel.

Ni zurekin Artxandan? Ni zurekin txanda eta moztu.

Porrotaren obizko jinglea.

Mikel.

Euskaldunek ideiak komunikatzeko gustoko duen bidea, dudarik gabe zera da: Manifa.

Patxo.

Manifa batean bai, manifa batean euskalduna bere saltsan sentitzen da.

Pankarta banarekin agertzen dira.

Patxo.

(Esloganen doinuarekin) Neska polita zara, polita gustiz bai!!! Halere omen zaude, oraindik ezkongai!!! Ezkongaitezen biok, esan zaidazu bai!!!

Mikel.

Ni zurekin ezkondu... ??? Ni zurekin... Ni zurekin... Ostia, maderoak!!!

Sirena hotsa enztuten da, eta biok korrika irteten dira.

Patxo.

Gaur egun komunikazioaren urrezko aroan omen gaude: internet, mobilak... baina euskaldunen komunikazioa ez da horregatik hobetu.

Mikel.

Gustiz kontrara. Sms-ak inkomunikazioa areagotu dute. Ze hitzak laburtzeko mania horrekin, nork ulertzen du ezer? Hara nola inkomunikatzen diren auskaldunak gaur egun:

Patxo mobilean ari da tekleatzen.

Mikel.

Ui, sms bat! (Irakurtzen) Nsk plta zra, plta gtz bi, hler men zde orndik skngi, zkn gitzn bik, sn zadzu bi.

Mikelek erantzuna idazten dut. Patxo jasotzen du.

Patxo.

(Irakurtzen) N zrkin zkndu? n zrkin ji ji.

Mikelek peluka kendu eta Patxoren ondora da.

Mikel.

Aupa, Patxo.

Patxo.

Koño, Mikel.

Mikel.

Zer, nobiaren sms bat?

Patxo.

Aha.

Mikel.

Eta zer kontatzen du?

Patxo.

Puta idearik ez.

Mikel.

Bagoaz botellon bat egitera?

Patxo.

Guay.

Badoaz. Porrotaren ohiko jinglea.

Patxo.

La ley de vascos no comunicantes. Zorionez, beti geratuko zaigu sexu telefonikoa.

Mikel.

Oh, bai!

Telefono numero bat markatzen du Mikelek.

Emakumezko abotsa. (Off)

Este es el servicio telefónico sexual de Vanessa. This is the Vanessa's sexual telephone service. C'est le service telefonique sexuel de Vanessa. Hau Vanessa-ren telefono sexuala da. Quieres gozar connigo en castellano? pulsa 1. Do you wan to take pleasant with me in english? Then push 2. Voulez vous plasentir avec moi en francais?, Pulsez 3. Euskaraz gozatu nahi al duzu nirekin?? Lotsagabe zikina!! Kolgatu oraintxe bertan, zaplasteko bat ematea nahi ez baduzu, zerria!! (...) Lotsarik ere ez duzu ta!!

Porrotaren ohiko jinglea.

ROMEO TA JULIETA

Patxo.

Ez dakigu komunikatzen. Eta arazoa euskerarena da. Romeo eta Julieta, estabaterako, ezinezkoa izango zen euskeraz.

Patxo.

Italieraz bai, italieraz ederki egin daiteke. Begira:

Romeo eta Julietaren nolabaiteko "karakterizazioa" jantzi eta garaiko muska bat entzuten da.

Julieta.

¿Vais ia partire? El alba es ancora lontana-
Era del rusignolo e no de l'alondra
el cantare qui ha ferito la tua orechia.

Romeo.

No, cara mia, era l'alondra
el heraldo de la matina,
non era el rusignolo
Lei faro de la notte sonno apagatto
e gia asoma il luminoso giorno
sugli alti monti brumosi
Debo partire e vivere
o restare e morire.

Julieta.

Questa non e ancora la luce del mattino
Io la conosco bene
E una meteora que il sol ha creato
per illuminare la tua senda.
Resta qui, non debi partire.

Romeo.

Oh, qui me arresten, qui me den morte;
sea cosí, si e la tua voluntade
Dire que questa lumina non e il alba
e que non e il canto di l'alondra
questo qui arriva a la mia orechia.

Julieta.

¡Mas es la matina! ¡Fúgite, presto, va!
E l'alondra quella que canta
con il suo canto rudo e dissonante.
Andiamo, parti, que la matina a arrivato.

Romeo.

Lumine nel celo, e sombra in nostra pena.

Mikel.

Orain berriz, imajina Romeo eta Julieta barik, Eneko eta Ursua direla.

Ursua.

Ba al zoaz? Oraindik ez da eguna argitu
Urretxindorra izan da, eta ez oilarra
zure belarri ikaratia dardarazi duena.

Eneko.

Oilarra izan da, egunaren berri ekartzen duena

Ursua.

Urretxindorra

Eneko

Oilarra

Ursua.

Urretxindorra

Eneko.

Oilarra, koño, goizaren berri ekartzen duena!!

Eta ez urretxindorra!!

Ursua

Ez niri ohiu egin, koño!

Eneko.

Begira, maitea, zeruko marra horiek
odeien artean eguzkia dager ekian.
Joan egin behar dut, bestela hilko naute

Ursua.

Argi hura ez da egunarena

(Ixiltaxuna)

Eneko.

Jode...

Ursua.

Zer?

Eneko.

Ezerrez, ezerrez...

Ursua.

Ez da egunarena, ondo dakit!

Eneko.

Baietz, baietz.

Ursua.

Zeruan dabilen meteorobat da.

Eneko.

Meteorobat...

Ursua.

Ba bai, meteorobat, zer ba?

Eneko.

Ezer ez, ezer ez.

Ursua.

Ze agian zerbait gertatzen da.

Eneko.

Ez, ez, zu zeu.

Ursua.

Zeruan dabilen meteororen bat da

gau ilun honetan zure bidea argitzeko
Gera zaitetz pixka batean, oraindik denbora dago

Eneko.

Atxilotu nazatela, hil nazatela
zuk hala desio baduzu.
esango dut hango argi hura ez dela egunarena

Ursua.

Ez da eta.

(Ixiltasun urduria. Enekok txistua irensten du)

Eneko.

Eta oilarraren kantua
ez dela oilarraren kantua.

Ursua.

Eguna argitzen ari da!!

Eneko.

Zertan geratzen gara ba?

Ursua.

Alde, korri, zoaz!!
Oilarra da entzuten dena
bere kantu melankoliatsuaz.

Eneko.

Ikusten? Oilarra zen. Eguna argitzen ari zen.
Zer esaten nizun ba?

Ursua.

Oraintxe bertan esan duzu ez zela oilarra.

Eneko.

Nik?

Ursua.

Esan duzu hitzez hitz:
“esango dut hango argi hura ez dela egunarena
Eta oilarraren kantua
ez dela oilarraren kantua.”

(Publikoari) Esan du, al az du esan?

Eneko.

Bale, bai... Esan dut, bai, baina zerarako...

Ursua

Baina zer?

Eneko.

Ezer ez... Ezertarako ez.

Ursua.

Ah, beno.

Zoaz, arren!! Eguna argitze ari da eta!

Eneko.

Argia zeruan, eta itzala gure penetan.

MARITXU TA BARTOLO

Mikel.

Euskalerrian ez dugu, jakina, Romeo eta Julietarik. Hemen “Maritxu eta Bartolo” daukagu. Baina “Maritxu eta Bartolo” kanta, metaforaz josita dago, eta hor dago arazoa.

Patxo.

Imajina dezagun egoera. Ni Bartolo naiz, nire mutil kuadrillarekin nago mutilen kontuetaz hitzegiten: futbola, la ostia, game boy, jode, patatin patatan...

Mikel.

Ni Maritxu naiz, eta neska kuadrilarekin nago, nesken gauzetaz hitzegiten: euskal poesia kontemporanea, zine hiperrealista txekiarra...

Patxo.

Baina bion begiradak gurutzatu dira. Elkarrengana joatea erabakitzen dute.

Maritxu erdira hurbiltzen da. Fondoan “Maritxu nora zoaz eder galant hori” melodia entzuten da, oso tinbre alaiarekin. Ondoren Bartolo doa, “Iturrira Bartolo nahi baduzu etorri” entzuten dugu, tonu grabea, eta Bartolo hurbiltzen da.

Patxo-Bartolo.

“Maritxu nora zoaz eder galant hori?”

Mikel-Maritxu.

“Iturrira Bartolo, nahi baduzu etorri”.

Publikoari.

Mikel.

Munduko edozein artaburuk ulertuko luke, Maritxuk “Iturrira bartolo nahi baduzu etorri” esaten duenean, esan nahi duela: “Ohera Bartolo, nahi baduzu etorri”. Baina Bartolok ez ditu metaforak ulertzen.

Bartolo.

Eh?

Maritxu.

(Bartolori) “Iturrira, Bartolo...” “I-TU-RRI-RA (kakotxen artean ipintzeko keinua egiten du) Bartolo, nahi baduzu etorri?”

Bartolo.

“Iturrian zer dago?”

Maritxu.

Jode... “Ardautxo txuria.”

Bartolo.

¿Nola?

Maritxu.

Jode, Bartolo! (Keinu nabarmenak egiten) “¡¡¡Ardautxo txuria, koño, ardauxo txuria de toda la vida!!! ¡¡¡Biok edango dugu nahi dugun guztia!!!

Bartolo.

Aaaaah!! Bagoaz “de botellon”?

Maritxu.

Agur, ben hur.

Badoa.

Bartolo.

Dios! Poltsikoan neukan!!

Mikel.

Ikusten? Euskeraz ez ditugu metafora sexualak ulertzen.

LAU TEILATU :

SURREALISMOAREN AJEAK

Patxo.

Ez lehen eta ez orain. Gure belaunaldian beste kanta bat egon da, ligatzeko, edo hobeto esanda, ez ligatzeko: “Lau Teilatu”. Baina nork ligatu du inoiz Lau Teilaturekin? Ezinezkoa da!!

Mikel.

Erridikuloa bai, erridikuloa mila aldiz egin dugu “lau teilatu”-rekin.

Patxo.

“Maritxu eta Bartolo” metaforikoa bazen “Lau Teilatu” subrealista da.

Mikel.

Baina zergatik konplikatzen gara hainbeste? Beste hizkuntzetan kanta serio eta normalak erabiltzen dira ligatzeko: “Qué difícil es hacer el amor en un sinca mil”...

Patxo.

Edo “Dale a tu cuerpo alegría Macarena”.

Mikel.

Zergatik gara gu beti erridikuloa egin behar dugunok??

Biok pailazo sudur gorriak jartzen dituzte. Offean hitz egiten denean, pertsonaiek publikoari begira geratzen dira. Kantuarekin, aurrez aurre begira.

Patxo.

Hemen gaude ta poztutzen naiz.

Mikel.

Ta ziur zure aita ere bai.

Off:

Bere aita? Zer zerikusi ote du bere aitak orain?

Patxo.

Ta ze ondo!

Ixilunea.

Off.

Ez dakite zer esan.

Patxo.

Zelan dijua zure bufanda txuria?

Off.

Ligatzeko orduan tonterriak esaten dira, baina “bufanda txuria”-rena rekor mundiala da. Arrak gaiaz aldatzen du berehala.

Patxo.

Goxo goxo kanta egin nazu Benitoren Mariasol.

Off.

A ze ateraldia. Non dagoela uste du ba, Operación Triunfon?

Mikel.

“Maria Soooooolt ta Kasteroooooo...”

Off.

Neskak belarria ipurdian dauka. Arrak barreari eusten dio ahal duen moduan. Emea negarrez hasten da.

Patxo.

Negarrik ez, zuri zaude ta malkoak zure kolorea kentzen dute.

Off.

Ankasartze itzela: ez esan inoiz eme bati zurbil dagoela, ez bere ohean lo egin nahi baduzue, behintzat.

Mikel.

Felix, Felix, bihar egongo gara.

Off.

Ikusten? Se jodió.

Mikel.

Txanpan apur batekin.

Off.

Txanpaña? Arra liguren gastuak kalkulatzeko ari da: txanpaina, kondoiak, hotela... Hotela? Ez, hobe kotxean.

Patxo.

Dirurik ez, baina, izarrak gurekin daude.

Off.

A ze kutrea!

Patxo.

Piano baten soinuaz.

Off.

Pianoa, bai, kotxe barruan, “de cola” no te jode. Ligatzeko saioak porrot egin du. Baina biok elkarren ondoan jarraituko dute dantzan, imajinatzen nola arraio jo daitekeen larrua lau teilatu gainean.

Lau teilatu kanta entzuten da. Biok koregrafia klown bat egiten dute (Trizikleri omenaldia).

Mikel.

Erridikulo totala.

ERRIMAK ETA PORROTAK

Patxo.

Ba horrela gabiltza euskaldunak. Eta errua euskerarena da.

Mikel

Ez gaizkiulertu, eh? Euskera oso hizkuntza ona da gauza batzuetarako. Esatebaterako bertsoak egiteko.

Patxo

Beno, euskera hain da moldagarria ze bokal bakar batez hitz egin daiteke nahi ezkeru.

Mikel

Bai zera! Hori ezinezkoa da.

Patxo

Baietz ba. Dutxan praktikatzen dut.

Mikel

Baina ze txorrada da hori?

Patxo

Aizu, Mikel, benetan ari naiz.

Mikel

Ez.

Patxo

Bai.

Mikel

Ez.

Patxo

Kagoendiez. Bostehun baietz.

Mikel

Bostehun ezetz.

Patxo

Ea ba,a edozein bokal, ausaz.

Txanpona botatzen du aidera.

Patxo

“A”-rekin, ea ba..

Mikel

Et, et, et! Zuk aukeratu duzu, ez du balio.

Patxo

Ondo da, aukeratu zuk bokal bat, a,e, i,o edo u?

Mikel

Eh?

Patxo

Aukeratzeko bokal bat a, e, i, o, edo u.

Mikel

Ah!

Patxo

Bale, "A".

Patxok mikroa hartzen du.

Patxo

Ea ba... "Arantza dama galanta da."

Mikel

Eh, oso laabuarra izan da. Luzeagoa!

Patxo.

"Arantza dama galanta eta argala da".

Mikel

Patxo, mesedez, hori edozeinek egin dezake. Tira, nik esango dizut zer esan behar duzun. Ea ba: emakume edadetsu bat kaletik doa bakarrik. Orduan lapur bat irtetzen zaio bidera, kutxilo bat eskuan, eta dirua eskatzen dio, baina amonak orduan pistola bat atera eta tiro egiten dio.

Patxo mikrora hurbiltzen da

Mikel

Eta euria ari du!

Patxo hastera doanean

Mikel

Eta emakumea amerikarra da.

Patxo hastera doa

Mikel

Eta beltza!

Patxo.

Alabaman, hamarrak pasak. Andra bat, dama bakarra, baltza arrazaz, zaharra, amama bat, kaxa bat darama. Halatan, txaparrada bat, barra barra. Andra baltz zaharra arrapaladan tapa tapa, baña hartan, han makarra zantar bat, labana daramala. "paxa kaxa, amama zaharra" Makarra zantarrak amama zaharragana darama labana. Traza txarra. Hartan amama zaharrak arma bat atara ta bala bat karga ta makarragana darama... ta danba.

Mikel

Orain "E"rekin.

Patxo

Ez gaitezen haritik urundu. Euskera aona da bertsoetarako.

Mikel

Hori da. Baina zertarako? Zuek ligatu duzue inoiz bertsoetan? Ez, ezta? Saiatu zaitez bertsoetan ligatzen, eta porrot egingo duzu.

Patxo.

Elegantementean, baina porrot. Hona hemen Bizkaiko diskoteka karrozero bat, eta bertan berrogei urtetako neska ta mutilzaharrak azken aukeraren bila:

Giroa, diskoteka bat. Beti ere, eskenatxoa hasi eta bukatzeko, diskotekako musika eta argiteria. Eskenatxo bakoitzean musika desberdin bat aukeratuko genuke.

Mikel.

Berasaingo diskoteka bat.

Patxo.

(Dantzan, Mikelen ondoan, jendeari agurka) Epa, Luis Mari! Zer mouz, Pedro Mari!! Gora Euskadi Migel Mari! (Mikel ikusten du) Koño, neska bat, a ze mirari! (Hurbiltzen da eta bere burua aurkeztu) Eup, ni Jose Mari.

Mikel.

Ni ez, gudari.

(Buelta ematen du. Patxo berriro ere bere aurrean)

Patxo.

Zertan ari?

Mikel.

Ez al dek nabari?

Patxo.

Dantzari?

Mikel.

Bingo, lehendakari. Eta hi, zer “de Safari”?

Patxo.

Ja... Beno, bai, ea pozgarri bat ematen diogun gorputzari.

Mikel.

Eta zer iruditzen zaiok hire emazteari?

Patxo.

Eraztuna kendu ta agur problemari.

Mikel.

Izorradi.

Patxo.

Nahi al den zerbait, janari edo edari?

Mikel.

Bazeukaat ugari.

Patxo.

Beno, hire etxean ala nirean, non ekingo zionagu parrandari?

Mikel.

Hara hor hire emaztea, galdetu berari.

Patxo.

(Atzera begira) Ostia, Ana Mari!!

Mikel.

Agur eta eutsi goiari.

Patxo.

Orduan,... gaizki deritsozu txortan egiteari?

Musika aldatzen da.

Mikel.
Tuteran.

Patxo.
Epa korderiko!

Mikel.
Zer nahi duzu, mutiko?

Patxo.
Maiteminduta nago zurekiko.

Mikel.
Ez zaitez jarri patetiko.

Patxo.
Ez nauzu begiko?

Mikel.
Ezetz ba, sasiko!

Patxo.
Eta jartzen banaiz belauniko?

Mikel.
Ezetz, rekoña, nola dizut ba adieraziko!!

Patxo.
Zugatik lorik gabe daramat bi aste ta piko!!

Mikel.
Galdu zaitez betiko.

Patxo.
Nola asetuko dut nire grina erotiko?

Mikel.
Zoaz bideoklubera eta alkilatu "Instinto Basiko". (Badoa)

Patxo.
Orduan, txortan egitearena, ez dizut adieraziko?

Musika aldatzen da.

Mikel.
Altzürükün.

Patxo.
Aupa, zer dügü?

Mikel.
Orain arte ondo, aurrera ez nago segurü.

Patxo.
A ze giro, eh? Hau da jende kopürü!

Mikel.
Bai, jendez dago mükürü.

Patxo.

Nesketan politena zu, nere abürüz.

Mikel.

Mutiletan ez dago zu bezain txoribürü.

Patxo.

Ni Beñat Mendibürü, Donapalueuko Artabürü.

Mikel.

Eta zein da zure helbürü?

Patxo.

Zurekin gaua pasa bürüz bürü.

Mikel.

Agur zuberora. Eta beroaldia arintzeko astindu zure pürü.

Patxo.

Orduan, txoran egitearena komentatuko ere ez dügü.

Musika aldatzen da.

Mikel.

Negurin.

Patxo.

Epa, ketal?

Mikel.

Petral.

Patxo.

Bai, ezta? Giroa da mortal.

Mikel.

Mortal total.

Patxo.

Eta edaria, pattal.

Mikel.

Kriminal.

Patxo.

Anal.

Mikel.

Benetan, nago ahozabal.

Patxo.

Uf, a ze pedal.

Mikel.

Normal.

Patxo.

Konbinatua egin dute zital.

Mikel.

Literal.

Patxo.

Gaur ikusten zaitut espezial.

Mikel.

Ideal?

Patxo.

Gernital, y tal.

Mikel.

Ba genial.

Patxo.

Zera jarri zait bertikal.

Mikel.

Natural.

Patxo.

Orduan zure etxean ala nirean? Gauza bat... informal.

Mikel.

Eske nire karta astral...

Patxo.

Sexual?

Mikel.

Ez, gaur izpiritual.

Patxo.

Tamal.

Mikel.

Agur y tal.

Patxo.

Orduan, txortan egitearena, ke tal?

Musika aldatzen da.

Mikel.

Euskaltegian.

Patxo.

Epa, zer moduz pasachen?

Mikel.

Piska bat aburrichen.

Patxo.

Ez duzu danchachen?

Mikel.

Ez musika gustachen.

Patxo.

Bai, d.j. hori ez aklarachen.

Mikel.

Eta gainera moskardon pilloa inguruan belarria berochen.

Patxo.

Hori gertachen. Plasta bat agerchen, eta giroa izorrachen.

Mikel.

Bai, ni igual laster pirachen.

Patxo.

Nahi baduzu ni lagunchen.

Mikel.

Ez : « hobe bakarrik que mal akonpañachen » (Badoa)

Patxo.

Orduan, txortarena ez dugu komentachen?

SEXUA ETA KANTAK

Mikel

Eta hala ere, ezin kejaratu, ze gure gurasoek okerrago zuten.

Patxo.

Hori, diktaduran erabat debekatua zegoen sexuaz hitzegitea. Jendeak kodigo berezi bat erabiltzen zuten, zensura sahiesteko.

Mikel.

Esatebaterako, erekzioari buruz hitz egin nahi zutenean, kanatzen zuten “*Gora ta gora beti*” Edo “*Altza felipe trulalai*”.

Patxo.

Eiakulazioari buruz: *Artillero dale fuego*.

Mikel.

Masturbazioa: *Beti penetan* edo *Manuelatxo*.

Patxo.

Multiorgasmoa: *Bat bi hiru lau bat bi hiru lau*.

Mikel.

Gatillazoa: *Hil da gure katua*.

Patxo.

Orgia: *Zenbat gera, lau bat, hiru bost zazpi*.

Mikel.

Matxismoa: *aupa gizona*.

Patxo.

Inzestoa: *prima eierra*.

Mikel.

Sadomasoa: *egoak ebaki banizkio*.

Patxo.

Bestialismoa: *Pintxo pintxo gure txakurra data*.

Patxo.

Jarri dezagun adibide praktiko bat. Hirirogei hamarkadaren bukaera da. Exzepzio egoera dago kaleetan. Antzokietan “El Caserio” eskeintzen dute. Kanean, aldiz, zarezuela krudelago bat gertatzen ari zen, errealitate putaren zartzuela.

Mikelek prostitutarena egiten du. Patxo ondotik pasatzen da. Eskena hau kantatu gabe egingo da, baina esaldi bakoitzarekin, dagokion melodia entzungo da.

Mikel.

Aupa gizona! Nora zoaz, euskal semea?

Patxo.

Eh?

Mikel.

Hator hator.

Patxo.

Eta norekin? Eta zeinekin?

Mikel.

Zenbat gara, ba, lau bat hiru bost zazpi?

Patxo.

Ah! Zu eta ni?

Mikel.

Biok goxoki!

Patxo.

Ez, ez dut nahi, ez ez ez.

Mikel.

Zergatik zergatik zergatik zergatik?

Patxo.

Gogo, gogo banuela baina dirurik ez, dirurik ez.

Mikel.

Debalde festa preparatzen det gogoan dedan orduan...

Patxo.

Gaur goizean jeiki naiz suerte onean !

Mikel.

Hator hator mutil etxera.

Patxo.

Negar egingo luke nere amak baleki.

Mikel.

Orduan, lau teilatu gainean, ilargia erdian.

Patxo.

Ados, eta zu goruntz begira.

Mikelek besotik hartu eta eramaten du.

Patxo.

Emostasus musutxuek.

Mikel.

Gero gero gero, gero gero bai.

Patxo.

Euskalerritik kanpora naramazu eta ez dakit nora.

Gelditzen dira.

Mikel.

Bagare, bagera, bagire, bagara.

Patxo.

Hemen gaude ta poztutzen naiz.

Mikel.

Ta ziur zure «gaita» ere bai.

Patxo.

Herritik sortu zinalako maite zaitu herriak.

Mikel.

Zer eskatzen du herriak?

Patxo.

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi...

Biombo baten atzean jartzen dira. Bakarrik burua ikusten zaie.

Patxo.

Tori, txin txin txin txin, diruaren hotsa.

Mikel.

Está muy bien, esaten du konfiteruak.

Patxo "Biluzten" da. Bionbo gainean prakak uzten ditu.

Patxo.

Alehop! Hartuizu gurusun gustija.

Mikel.

Ui!! Txiki txiki txikia!

Patxo.

Beno... Hasi naiz haunditzen.

Mikel.

Haika, mutil, jeiki hadi!!

Patxo.

Txikia izanik asko maite zaitut, nik.

Mikel.

Altza Felipe trulalai!!

Patxo.

(Lotsatuta) Ez dakit zer pasatzen den azken aldi hontan.

Mikel.

Haurtxo txikia seaskan dago.

Patxo.

Orain galdurik nago beldurrez beteta, muniziorik gabe gelditu naiz eta

Mikel.

Agur Zuberoa.

Mikelek alde egiten du.

Patxo.

Ez dira betiko garai oneneak.

Porrotaren ohiko jinglea.

FUTBOLA ETA SEXUA

Patxo.

Non arraio isurtzen du, ba, euskaldunak, sexuan gastatzen ez duen libidoa? Ba gizonezko gehienok, futbolean.

Mikel sartzen da, tiffosiz jantzita.

Mikel.

Bale, puta madre, hasi gara berriz betiko leloarekin, euskaldunak futbola baino ez dugula buruan, eta ez dakit zer eta ez dakit nor...

Ixildu zaitez, jode, bestela txartel gorria aterako dizut. Ojo, nirekin topiko horrek ez du balio

Kaixo denoi, ni Keta naiz, Jaurti Keta. Eta niri futbola, lo justo. Ni sexuaren krak bat naiz. Dena daukat: teknika, prestakuntza fisikoa eta jokaldiaren instintua. Eta batez ere estrategia, badakizue, ikutu laburra, zurea nirea, zurea nirea, ti ta ti ta... Neskak “catenazzioa” jartzen badu, hegaletatik zabaltzen dut jokoa, defentsa sistemarik onena eraso delako, eta orduan atea babestu gabe uzten duenean, zasss! sukalderaino!

Beno, hau teoriatzko jokaldia da, pizarrakoa, izan ere nik bankillo gehiegi berotzen dut, baina bakarkako “entrenamenduetan” pitxitxia naiz. Neure buruari olatua eta guzti egiten diot.

Horregatik, ez dut bustitzeko esperantza galdu nahi. Ea zuetako baten bat animatzen den ni fitxatzera.

Ez dut eskatzen lehenengo dibisiñoko norbait, erregionalean jokatzearekin konformatzen naiz, baldin eta golak sartzeko aukera badut. Eta nobioa baduzu ere ez dio ajola, ohituta nago suplentea izaten. Eta tenporada osorako ez bada, jode, emaikidazu minutu batzu barruan dudan guztia erakusteko.

Ez zaizu damutuko, benetan. Ez naiz matxito tipiko bat, buruan futbola baino ez duen horietariko bat. Beste gauza asko interesatzen zaizkit: futbitoa, futbolina, futbol-playa...

Animatzen bazara kontaktatu nirekin zuzenean, ez daukat representanterik. Nire helbidea, “jaurti keta@jokozkanpo.com”

Badoa.

POLITIKAREN EROTIKA

Patxo.

Bai, agian arrazoi du. Futbolarena topiko bat da. Eta ez gara hona topikoetaz hitz egitera. Beraz, non gastatzen du euskaldunak bere libidoa?

Mikel

Ba politikan.

Patxo.

Horrela gustatzen zait niri, topikorik gabe!

Badoa.

Mikel.

Hauteskunde eguna euskaldunarentzat orgia bat da. Lehenengo aldia, burutik sekula ezabatzen ez den esperientzia da.

Urna bat ipintzen dute. Mikel urnaren ondoan, presidente gisa. Patxo sartzen da, urduri.

Mikel.

Sartu, sartu, mutiko, ez zaitez hor geratu.

Patxo.

Bai.

Mikel.

Karneta.

Patxo.

Eh? Bai, tori.

Mikel.

Ui!! Hamazortzi urte! Lehenengo aldia da, ezta?

Patxo.

(Lotsaturik) Tsssst!! Bai, lehenengo aldia da.

Mikel.

Lasai egon, dena ondo aterako da.

Patxo.

Apur bat urduri nago.

Mikel.

Zu lasai, atera zera.

Patxok papeleta ateratzen du.

Patxo.

Non... sartu behar dut?

Mikel.

Baina honela sartuko didazu?

Patxo.

Eh?

Mikel.

Zorroan sartu, motel.

Patxo.

Ez dakit nola jartzen den.

Mikel.

Lasai, nik lagunduko dizut.

Kartazal bat hartzen du.

Mikel.

Oso erreza da. ikusten? Orain sartu.

Patxok nerbioekin ez du asmatzen.

Mikel.

Egon lasai. Horrela. (Sartzen dio) Orain, sartu.

Patxo.

Non? Ah, zuloan, jakina!!

Patxok botoa sartzen du, orgasmo txiki batekin. Patxori zoriontasun aurpegia geratzen zaio. Zigarro bat pizten du.

Mikel.

Votó! Botoemaile moeta asko dago. Bizlotsua.

Patxok botoa urnako zuloan sartu eta atera, sartu eta atera dabil. Mikel aspertuta, atzazkalak garbitzen, harik eta Patxok botoa sartzen duen arte.

Mikel.

“Votó!” (...) Boto-emaile prekoz.

Patxo sartu eta kartazala atera bezain laster orgasmora iristen da. Mikelek sartzen dio botoa urnan.

Mikel.

“Votó”. Bilbotarra.

Patxo oso harro sartzen da.

Patxo.

Epa! Lasai, demokrazia, “hauteskunde-man” heldu da herria salbatzera! Gora Euskadi, kagoendiez. Ea, non dago zuloa, gaur bero bero nago eta! Tori, preziosa!! Ze, gustora, eh?

Mikel.

Apostu-zalea.

Patxo.

(Urnatik urrun, papeleta “rana” jokuan bezela.) Bosthun hemendik sartu baietz!!

Mikel.

“Votó”. Minoriarekin arazoak egoten dira.

Patxo sartzen da, baina ez du ezer egiten.

Mikel.

Eta?

Patxo.

Es ke...

Mikel.

Lasai. Aukera guztiak onartzen dira.

Patxo.

Baina...

Mikel.

Demokraziaren denok kabitzen gara. Atera zure botoa lasai.

Patxok kartazal txiki txiki bat ateratzen du.

Mikel.

(Barreari eutsi ezinik) Koño! Baina nora zoaz? Hori bai aukera minoritarioa!!(...) Barkatu, barkatu!! “Votó”. (...) Baina gehiengoak arazo handiagoak ematen ditu.

Patxo.

Tori gehiengo absolutoa!!

Patxok sekulako kartazal handia ateratzen du. Mikel beldurtuta. Patxok urnako zuloan sartzen saiatzen da, kostata. Azkenean lortzen du.

Mikel.

“Votó”. (...) Eta nola ez, beti sartzen da gogaikarriren bat.

Patxo gabardina batekin sartzen da. Patxo gabardina zabaltzen du exhibizionisten moduan. Gabardina barrua partidu guztietako pegatina eta ikurrez beterik dago.

BERTSO BULERIA

Mikel.

Patetikoa, Patxo, patetikoa.

Patxo.

Bai, ezta? Nora iritsi garen euskaldunak!! Baina zer arraio gertatzen zaigu?

Mikel.

Argi dago gauza bat: euskera ez da sexia. Catalanek, esatebaterako, zergatik ligatzen dute ba? Catalaneraz hitz egiten dutelako.

Patxo.

Hori da, catalanera sexia da: “T’estimú” “Sisplau” “butifarra” patatin patatan, eta konturatu orduko, “sardana a trois” bat dantzatzen hasten zara.

Mikel.

Denbora galdu genuen euskaltegian! Katalanera ikasi behar genuen. Edo arabiera. Edo italiera.

Patxo.

Gure euskaltegian italiar bat zegoen. Eta irakasleak zerbait galdetzen zionean, berak beti erantzuten zuen, “no lo so, señorina”. Aizu, eta neska guztiak txolinduta, “ze jatorra italianoa”, “ze sinpatikoa”, “zelako ipurditxoa”...

Mikel.

Eta zergatik ez zenuen zuk gauza bera egiten?

Patxo.

Egin nuen. Irakaslea, “Patxo, nik zuri liburua emango...” Eta ni, “No lo so”, eta neska guztiak, “ze gilipollas” “Txupauta dago.” “Dizut, subnormala, dizut”.

Mikel.

Entonazioa falta zitzaizun. Ez da gauza bera: “No lo so” eta “No lo so”.

Patxo.

Eta zein da diferentzia?

Mikel.

“No lo so.” Ez naiz italiarra.

Patxo.

Ez, ze italiarra bazina, orain ez zinateke hemen egongo, ohean egongo zinateke, “fetuchini ininterruptus” bat egiten.

Mikel.

Eta arabiarra banintz, jaima batean, mila eta bat txortaldi egiten.

Patxo.

Baina euskaldunak gara. Eta euskaldunok ez dugu ligatzen ezta Nafarroa Oinezan.

Mikel.

Hobeto esan, ez genuen ligatzen, ze lagunak, zorionekaoak zarete, bukatu da bizimodu triste hau.

Patxo.

Ladies and Gentelman, gaur, hemen, zuzenean eta primizian...

Mikel.

Ez dok Hiruk aurkezten du

Biok

“Euskara Sexiaren Metodoa”.

Musika. Kartel edo pankarta bat jartzzen dute eskenatokian.

Mikel.

Metodo hau laborategian frogatuta dago emaitza bikaineekin. Berari ezker, Patxok bere lehenengo esperientzia sexuala izan du... hamster batekin.

Patxo.

Beno... mementuz platonikoa baino ez da.

Mikel.

Baina goazen harira. Gaur egun, eta inkesten arabera...

Patxo.

Inkestek! Oraindik ez ditugu inkestek irakurri.

Mikel

Bahh! Eta zer? Haiek badakite ez dutela ligatzen, guk badakigu haiek dakitela eta haiek badakite guk badakigula badakitela. Zertarako jarraitu?

Patxo.

Kontsolatzeko. “Mal de muchos...”

Mikel.

Egia da. Egin dezagun barre pixka bat publikoaren miseriekin.

Patxo.

Horixe!

Publikoarengana doa inkestek irakurtzera.

Patxo.

Beno beno... Koño!

Mikel

Zer?

Patxo.

Ez, honek... Frantsesa, griegoa, Thailandesa eta Turko Txipriota egiten du.

Mikel.

Hara! Erregela konfirmatzen duen duen exzepzioa.

Patxo

Nola egiten da Turko Txipriota?

Mikel

Aiba dio!

Patxo

Zer?

Mikel

Honek, menage a trois, menage a quatre, menage a cince, eta menage ad infinitum praktikatzen du.

Patxo.

Eta honek, ohe biribila, ohe karratua, ohe romboidea eta ohe duodekagonala.

Mikel.

Eta beste honek fellatio, cunnilinguis, coitus interruptus eta rosa rosae!

Patxo.

Eta beste honek Tigrearen saltoa.

Mikel

Ba honek kanguroarena.

Patxo

Baina zer arraio? Viagra-man eta tanga-woman guztiak etorri zarete gaur? Mikel, etorri.

Eskenatokian, aurrez aurre, abopeka elkarri.

Patxo

Zer da hau, txantxa bat? Ziria sartu nahi didazu?

Mikel.

Ni zu bezain harrituta nago.

Patxo.

Benetan?

Mikel.

Baietz, ez dakit ezer.

Patxo.

Orduan? Hau ez da normala.

Mikel

Agian bai.

Patxo.

Eh?

Mikel

Agian arazoa ez da euskaldunena. Agian arazoa gurea da.

Patxo.

Bai zera!

Mikel.

Ba zuk esango didazu bestela!

Publikora zuzentzen dira orain.

Patxo.

Beno, beno... Badirudi zuek tximinoen moduan praktikatzen duzuela.

Mikel.

Eta gure txapa entzuten egon zarete tutik ere esan gabe.

Patxo.

Guk gure barrua zabaldu dizuegu, denok berdinak ginelakoan, eta zuek pentsatzen: "Pringaos"!

Mikel.

Gure kontura barre egiten egon zarete, disimuloan.

Patxo.

Ondo pasatu duzue erridikuloa nola egiten genuen ikusten, eh?

Mikel.

Hau ez da egiten. Hau oso itsusia da. Gu... Gu...

Patxo.

(Gezurra dela gaizki disimulatuz) Txantxetan ari ginen.

Mikel.

Nola?

Patxo.

Guretzat sexuaren munduak ez dauka sekreturik. Ezta, Mikel?

Mikel

Eh? (...) Ez. Nire bizitza peli XXX bat da.

Patxo

Gezurretan ibili gara zuekin errezago konektatzeko.

Mikel

Baia, ze guk uste genuen zuek ere... Ba...

Patxo.

Ba ze gauza bitxiak, ezta? Guk zuek zera zinetela pentsatzen... Zuek gu ere zera... Eta azkenean, zera.... Denok garela... zera.

Disimuloan Metodoaren kartela kentzen dute.

Mikel

Baina tira... Gauzak nola dauden ikusita... alferrik ari gara hemen.

Patxo

Bai, goazen etxera, lo egitera

Mikel

Nola lo egitera? Katxondeora.

Patxo.

Ah, bai! Katxondeora!

Mikel

Gaur ere juerga eta desmadrea, ezta Patxo?

Patxo

Buah! Buah!

Mikel

Eta gero esaten dute euskaldunok ez dugula balio sexu kontuetarako.

Patxo.

Buah! Prejuizioak. Kanpotarren prejuizioak. “Andaluzak sinpatikoak dira eta euskaldunak sosoak” Ala por ahí!

Mikel.

Gu sosoak? Gu jartzen bagara badaukagu saleroa eta... eta gatzontzia.

Patxo.

Eta frogatzeko, bertso batekin esango dugu agur.

Mikel.

“Bertso batekin”, pentsatuko duzue. “A ze muermoa”.

Patxo.

Beste topiko bat: “Euskaldunak sosoak gara eta bertsolaritza muermo bat da.”
Lehenengo topikoa bertan behera geratau da. Orain bigarrena.

Sonbrero andaluzak eta mikroak ipintzen dituzte. Musika entzuten da.

Patxo.

*Bertso estilo berria dugu bertso-bulería
Trakatra traka traka trakatra trakatra
Bertso estilo berria
Guk biok ekarria
Eta lehengo estrofa, jodó, badugu jarria
Trakatra traka traka trakatra trakatra.*

Mikel.

*Gure maisuak dira, jodé: Txirrita & Camarón
Trakatra traka traka trakatra trakatra
Xenpelar, Mendelssohn,
Shakespeare, Txiribiton
Lehendakiariari ez diogu egiten, batere jaramon.
Trakatra traka traka trakatra trakatra*

Patxo.

*Ez dakit zer esan, arraio, emango dut matraka.
(Trakatra traka traka trakatra trakatra)
Trakatra traka traka
Trakatra traka traka
Trakatra trakatra, kagoendiez, konpondu dut ataka.
Trakatra traka traka trakatra trakatra*

Mikel.

*Begira publikoa, redio, gustiz harrituta
Trakatra traka traka trakatra trakatra.
Konortea galduta
Bihotza zabaldua
Gaur bustiko dugula baietz, mekagoenlaputa!
Trakatra traka traka trakatra trakatra*

Biok.

*Eta hau da guztia, pardiez, zuen oinetara
Trakatra traka traka trakatra trakatra.
Zapiak atara
Ikusiko gara
Honenbestez bukatu baita Larruaizetara
Trakatra traka traka trakatra trakatra*

Ondoren, txaloak eta bitoreak, eta nesken ohinak.

Neskak (Offean)

Ele la grasia que tu tiene!

Tio bueno!

Queremoh un hiho tuyo! ...